

## Sagardo usaia



Uda pasa da, horrek esan nahi du negua ere gertu dugula eta opor giroa ere joan zaigula. Haurrak ikastolara eta helduak lanera! Bestalde herriko auzoetako festa gehienak ere pasa dira, baina garai honetan urtero bezala Aginako festak zain ditugu.

Egun hauetan Kalezarren barrena oinez ibili al zarete? Ibili zaretenok jabetuko zintzen sagarraren usainaz. Auzotarrok ere haizeak nondik jo Saizartik datorren sagar usain ederra sumatzen dugu gure etxeetan. Honek esan nahi du iada sagardoa egiten hasi direla eta konturatzerako berriro txotx garaia ganean izango dugula.

Hau guztia dela eta ale honetako kronika gaia honi buruz egitea okurritu zitzaidan eta honetarako datu batzuk bildu ditut Saizar aldean. Asteko esan didate aurten 1.800.000 kg sagar bildu dituztela, baina kilo hauen artean kilo gutxi dira hemengoak. Sagar gehiena Galizia eta Frantziatik, Normandiatik, ekarri dute. 1.800.000 kg sagar hauetatik 1.500.000 litro sagardo aterako dira, a ze pila!

Orain sagar guzti hau prentsatzan ari dira, honengatik sumatzen da sagar usaia auzoan, eta prentsatze lan hauen ondorioz muztioa lortuko dute. Muztio hau gero biltegie-



tan sartzen dute eta 2/3 hilabete inguruan bertan edukitzen dute fermentatu dadin. Behin hilabete hauek pasatzean orduan iristen da txotx garaia, normalean "San Sebastian" egunaren inguruan hain zuzen ere. Orduan izaten dugu aukera sagardo goxoa probatu eta dastatzeko!

Besterik gabe, idatzitakoa interesgarria iruditu zaizuela-koan, ondo ondo pasa San Praixkutan azkeneko festak dira eta!

## Festa giroa nagusi



Joan den irailaren 22an, lau gazteren sendotza ospatu genuen gure parrokiari, hauek izan ziren:

- Iban Arruti Bengoetxea.
- Aritz Aranburu Gorrotxategi.
- Iosu Ostolaza Pagola.
- Aitziber Aranguren Errasti.

Ondoren afaritan elkartu ziren beren familiekin.

Bestalde, San Praixku eguna ere ospatu genuen eta ekitaldi ezberdinez gozatzeko aukera izan genuen. Goizean meza nagusia ospatu genuen hamabi apaiz bertan genituela, hori edertasuna aldarean. Bi bertsolari ere izan genituen Patxi Etxeberria eta Txomin Garmendia. Aldareak ez zuen apaingarri eta lorerik falta eta bandera eder bat ere bertan ikus zitekeen. Hemendik eskertu nahi ditut bertan lanean, eliza garbi eta dotore jartzeko lanetan ibili diren guztiak, esker mila.

Txoko honetatik bidali nahi dut nere mezu pertsonala Kontxako bandera irabazi duten arraunlariei eta Orioko herriari: Aupa Orio!! Eta aginagatar guztioi ere bai, festak ondo pasatzeko aukera izan dezazuela.

## Etxe ekologikoa

Ez dakit zer esan nahi duen ekologikoa. Baina beti etortzen zait burura ditxosozko hitz hori andrea purrustaka hasten denean atariko argia ezin piztu ibiltzen delako. Lanpara horretan bizi baita Segismundo: saguzarra. Goiko kanpoaldeko habeetan bizi dira Sisebuto eta Senpronio. Gehiago ere biziko dira.

Garajeko atetik, autorik ez eta, izenik gabeko apoak sartzen dira, handiak eta txikiak. Katuak sartutako sugandila pusketak ... Aldamenean, belarretan ari nintzela, satorra akabatu nuen, konturatu gabe. Ziraunak nonahi. Eta sugeak... tabu dira etxean.

Ikusten duzuenek ekologikoa eta bioklimatikoa. Kanpoan hotz dagoenean, gurean aire egokitua kanpoan dagoenari egokitua, noski, hotza. Eta bero dagoenean, barruan izerditan.

Baratza ere bioekologikoa daukagu. Oraindik entzuten ditut bareen eta barraskiloen barre-algarak tomateetan tripa-festa egiten zuten bitartean.

Horrelakoa nahiko nuke betirako.

